

PRESTAKUNTZA TOKI ENTITATEETAKO HAUTETSIENTZAT

NAFARROAKO UDAL ETA
KONTZEJEN FEDERAZIOA



FEDERACION NAVARRA
DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ikastaroen ziklo bat antolatu du Nafarroako toki entitateak osatzen dituztenentzat. Izan ere, arratsalde bateko prestakuntza ekintzak eskaintzen dira udalen eta kontzejuen alor handien gainean: kultura, kirola eta gazteria; jasangarritasuna eta ingurumena; gizarte politikak; toki ogasunak; berdintasun politikak; eta gardentasuna, parte-hartzea eta gobernu egokia.

Hurrengo deialdietan, prestakuntza ekintza berariazkoagoak eskainiko dira toki entitateen kudeaketaren gai zehatzei buruz.

IKASTAROAK



KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Nafarroako udalek kultura, kirol eta gazteriaren arloan egiten duten jarduna. Arazoak. Jardunbide egokiak. Programa nagusiak. Nafarroako Gobernuak alor horretan toki entitateei dagokienez egiten duen politika. Programak, dirulaguntzak, hitzarmenak.



JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Toki entitateen politikak jasangarritasunaren eta ingurumenaren arloan. Ingurumen kontrolerako araudia. Garapen jasangarriaren helburuak eta toki entitateak. Tokiko Agenda 21. Klimaren eta energiaren aldeko alkateen hitzarmena. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak eta programak toki entitateentzat.



GIZARTE POLITIKAK

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Toki entitateen gizarte politikak. Lehen mailako arreta. Oinarrizko gizarte zerbitzuen lau programak: harrera, dependentzia, haurtzarofamilia eta gizarteratzea. Laneratzeko programak. Immigrazioa eta errefuxiatuak. Garapenerako lankidetzak. Gizarte klausulak toki entitateen kontratazio publikoan.



TOKI OGASUNAK

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Toki entitateen diru-sarreraren iturriak. Zerga-kudeaketa eta diru-bilketa. Aurrekontua eta kontuak. Aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudia. Kontrol ekonomikoa eta esku-hartzea.



BERDINTASUN POLITIKAK

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Toki entitateak Berdintasunari buruzko Foru Lege berrian. Berdintasun politikak: berdintasuna sustatzea udalerrian; berdintasuna udalen jarduketetan; programa nagusiak eta jardunbide egokiak; jarduketarik garrantzitsuenak emakumeen kontrako indarkeriaren kontra... Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren programak toki entitateei begira.



GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA GOBERNU EGOKIA

Heldu beharreko gai garrantzitsuenak

Toki entitateak Gardentasunari eta Gobernu Egokiari buruzko eta Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege berrietan. Jarduketa nagusiak gardentasunaren arloan. Parte hartzeko politikak, parte hartzeko tresna eta baliabide nagusiak.

HIZLARIAK

Honako hauek emanen dute prestakuntza ekintza bakoitza: NUKFko teknikariak, Nafarroako Gobernuko kasuan kasuko departamentuetakoak, Kontuen Ganberakoak eta udalekoak.

DATAK ETA TOKIAK

Ikastaroak arratsalde batekoak izanen dira, eta 2019ko urrian eta azaroan emanen dira. Behin jakinda zenbaterik parte hartuko duen bakoitzean eta horiek nondik datozen, aditzera emanen zaio pertsona bakoitzari noiz eta non izanen diren.

IZEN-EMATEA

Kasuan kasuko arloetan, dela udal gobernuan dela oposizioan, ardurak dituztenei zuzentzen zaie ikastaro bakoitza. Nolanahi ere, ikastaro batean baino gehiagotan eman daiteke izena. Izena emateko, datu pertsonalak helarazi behar dira (izen-abizenak, toki entitatea eta harremanetarako posta elektronikoa), posta elektronikoko bidez (fnmc@fnmc.es). Zuzenean ere eman daiteke izena, NUKFren webgunean (www.fnmc.es) "udalkideen prestakuntza" ataleko fitxa betez. **Izena emateko epea urriaren 4an bukatuko da.**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa da biltzen diren datuen tratamenduaren arduraduna, izen-ematea kudeatzearen toki entitateetako hautetsiei prestakuntza emateko programaren barnean antolatzen diren ikastaroetan. Eskuratzeko, zuzentzeko, eteteko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak balia daitezke. Argibide gehiago lor daitezke gure webgunean pribatutasun politikari buruz dugun atala irakurriz: <http://www.fnmc.es>